

## Gonzalo Nardiz

*El Mundo del País Vasco*, 1992-02-14.

Gernikan 1936an sortu zen lehen Eusko Jaurlaritzako gizonen artean bizirik geratzen den bakarra Gonzalo Nardiz Bengoetxea da. Bermeon jaio zen 1905an, beraz, 87 urte beteko ditu datorren azaroan. Errepublika 1931 ekarri zuten hauteskundeetarako sartua zegoen. Euzko Ekintza/Acción Nacionalista Vasca ni urtebete lehen Bergaran EAJ-PNVtik azkarrago bereiztea erabaki zuen taldekoa zen, eta gerra sortu zenean. Bilboko junta de Defensa delakoaren partaide izendatu zutenez gero, bera izan zen Garellanoko kuartelera sartu ziren lehenengoetakoa, tropentzako jantzi eta suministroo bila. Estatutoa 1936.go urrian lortu zenean, Agirrek bere Nekazaritzako kontseilari izendatu zuen. Gonzalo Nardiz gizon apala, argia eta zintzoa zenez, Agirre eta Leizaolaren aginduetara sintonia osoan aritu zen erbestaldi luzean. Parisen Iparraldera berriz itzuli zen arte. Bere partiduko bilerakoa zen Jose Olivares Larrondo, "Tellagorri", Buenos Airesen egindako Tierra Vasca-n idatzi zuen iraun zuen arte. Baionan Eusko Jaurlaritzak jarri zuen Delegazioaren buru izendatua izan zen gero. Han, eta Donibane Lohitzunen, ezagutu nuen neuk, EAKko kontseilari nintzela. Ez nion inoiz berekoikeriarik, ez alderdikieriarik, somatu.

Halaxe jarraitzen du oraindik, bere belaunaldiak eman zuen elkartasuna eta zuzentasunaren eredu. Egun hauetan egin diote EL MUNDO DEL PAIS VASCO honetan elkarrizketa bat. Ez da konforme gaur geure artean egiten den politikarekin: abertzaleen artean solidaritate falta salatzen du, bihotz gutxi eta kalkulu asko. Gure herrian esperientzi gutxi izan dugu politikagintzan, eta entzun egin behar genukela gure agintari izandakoei egiten dugun baino zerbatxo bat gehiago. Niri baia iruditzen.